

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ADMINISTRAZIO OROKORRAREN KONTUAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA - 2010

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak EA Eren Administrazio Orokorraren 2010eko ekitaldiaren kontuen fiskalizazio lana mamitu du, epaitegia arautzen duen 1/1988 Legeak agindutakoari jarraiki. Txostena aho batez onetsi dute Osoko kideek eta horietako hiruk boto partikular bat egin dute eta beste bik baterako boto partikularra.

Fiskalizazio-lanak kontuak egitean erabilitako kontularitzako printzipioen azterketa eta 2010eko urtean zehar administrazioaren aribidean legezko arautegia bete izanaren azterketa besarkatu du.

Legea betetzeari dagokion atalean, erakunde fiskalizatzaileak aldeko iritzia eman du EA Eren Administrazio Orokorrak legezko arautegia betetzeari dagokionez; alabaina, hainbat salbuespen jaso ditu.

Administrazioiko kontratazioari dagokionez hainbat lege-hauste azaleratu dira, besteak beste, hiru obra kontratutan onartutako aldaketan ondorioz hasiera batean esleitutako aurrekontuak % 28, % 39 eta % 41 gehitu izana; horrek lehia printzipioak urratzen ditu.

Halaber, Gobernu Kontseiluak arautegian finkatutako salbuespenezko prozedurari jarraiki, obra-kontratu, hornidura eta laguntza teknikoaren kontzeptuan 23,8 milioi euro baliokidetu dituela azpimarratu da, aurrez Ekonomia Kontrolerako Bulegoak kontrako txostena jaulkia zuela. Hona hemen ez-betetze nagusienak: publizitate eta lehia printzipioak ez betetzea; behin epea iraungia dela zerbitzua ematen jarraitzea; kontratuaren xedea bidegabe zatikatzea; kontratu bidezko euskarririk gabe zerbitzu ematea eta dagokion administrazio espedientea izapidetu gabe aldaketak egitea.

Diru-laguntzei dagokienez, guztira 14,5 milioi euro eman dira zuzeneko diru-laguntzetan, indarreko arautegiak agintzen duen apartekotasun eta/edo deialdi publikoa deitzeko ezintasunaren betekizunak urratuz.

Ekitaldirako onartutako aurrekontuek ez dute sarrera eta gastuen lurraldearen araberako sailkapena barne hartzen eta honek 1/1994 Legegintzako Dekretuaren 57. artikulua urratzen du.

Epaitegiaren iritzira, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak aurkeztutako Kontuak alderdi esanguratsu guztietan 2010eko ekitaldiaren jardura ekonomikoa erakusten du; salbuespen da Diruzaintza Geldikina ekitaldi itxieran 472,3 milioi euroan murriztu behar litzatekeela ulertzea, saldoei eusteko konpromisoarekin bankuetako kontu korranteetan gordailatutako kopuruari dagokiolako, euskal enpresei Finantza Babesa emateko Programa arautzen duen araudian aurreikusitakoari jarraiki.

Barne Kontrolerako Sistemiei eta Kudeaketa Alderdiei buruzko Irizpenen atalean administrazioaren jardueri dagozkien beste alderdi batzuk barne hartu dira, hala nola, aurrekontuak eta kontabilitatea, langileria, kontratazioa, diru-laguntzak e.a. HKEEK hobetu edo zuzentzeko gai direla irizten dienak.

Finantza egoerari dagokionez, HKEEK 2007-2010 aldian honekin lotutako parametro guztien bilakaera xehetasunez jaso du, hots, diru-bilketa, jasotako transferentziak, gastuak, aurrezki gordina, diruzaintza geldikin erabilgarria, erabilitako zorra, e.a; berebat, aurrekontu egonkortasunari buruzko legeen gaineko hainbat irizpen egin ditu.